

### I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**163/2025 Erabakia, apirilaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Mario García García, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren konfiantzako idazkari kargutik kentzea**

Urtarrilaren 7ko 3/2025 Erabakiaren bidez, urtarrilaren 14ko 9/2025 Erabakiak zuzendutakoa, Foru Gobernu Kontseiluak Mario García García izendatu zuen konfiantzako kargua den Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (1300.021 kodea).

Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan, eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituzten pertsonak izendatzea eta kargu gabetzea.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8 eta 24 artikuluek aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Mario García García behin-behineko langileek betetzekoa den Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren konfiantzako idazkari lanpostutik kentzea, (kodea: 1300.021), egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2025eko apirilaren 1etik aurrera izango du eragina.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 1a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**